

Tolosakoek bihar joko dute Bonberenean, eta bigarrenek larunbatean ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-03-08 ▶ IV. urtea ▶ 832. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

# Emakumearen Nazioarteko Egunean ere, berdintasuna aldarri

**TOLOSALDEA** ▶ Ekitaldiak antolatu dituzte herrietan; Jone Hernandez Tolosako Udaleko Berdintasun teknikariaren iritziz, «diskurtsoaren eta errealitatearen arteko jauzia nabarmena da oraindik berdintasunean» ▶ 4-5



Zizurkilgo eskulan taldeen erakusketa zabaldu dute Atxulondo kultur etxean. I. GARCIA

**LEITZA** ▶

## Leitzako finalerdian ariko dira Elozegi eta Riaño

Larunbatean ekingo diote jaioterrian Nafarroako Bertso Txapelketari ▶ 7

**IBARRA** ▶

## 'Xebas' omenduko dute gaur

1977an hil zuen Guardia Zibilak ▶ 6

**BERROBI** ▶

## Lehenengo eta gaurko eskolaren historia

2006ko Pausoka aldizkarian ▶ 6

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

## Greba eta mobilizazio deia, «erantzun sendoa emateko»

Manifestazioak eta lanuzteak deitu ditu ezker abertzaleak bi eskualdeetan ▶ 2



Tolosaldeko ezker abertzaleko hainbat kide, atzo, prentsaurrean. N. L.

**HITZA-REN OHARRA**

Ostegunerako dagoen greba deialdia dela eta, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO langileek greba egitea erabaki dute eta, beraz, bihar ez da HITZARIK izango.

## POLITIKA ▶

## ERREDAKZIOA

Nazio mailako deialdiarekin bat eginez, Tolosaldeko ezker abertzaleak biharko greba eta mobilizazio egunera deitu zuen, atzo, prentsaurrean, Tolosaldeko Kultur Etxean. Leitzaldekoak ere deitu ditu mobilizazioak.

«Azken egunetan gertakari larriak eman dira Euskal Herrian. Dispersio politikaren eraginez bi euskal preso politikok bizia galdu dute Espainiako kartzeletan, Auzitegi Gorenak hartutako erabaki berriak dispersio politika areagotu eta bizitza osorako espetxealdia ezarri nahi du, eta hori salatzeke burutzen ari diren erantzun eta ekimen mobilizazioak ezberdinen aurrean eraso errepresiboa erabatekoa da», hasi zuen agerraldia.

Hala, biharko greba eta mobilizazio egunera deitu dute, «erantzun sendo eta tinkoa emateko baliagarria izateaz gain, garatu nahi dugun prozesu demokratikorako inbertsio politiko handia izango dela ere barneratuz».

Egoera honek «arduradun politiko zehatzak» ditu Tolosaldeko ezker abertzalearentzat: «Espainiako gobernuaren zuzentzen duen PSOEek dispersio politikoa eta, orohar, errepresio estrategia bere horretan mantentzen du, gertatzen ari den egoera guztiaren erantzule nagusia denez». Horrekin batera, «Ertzaintzaren jarrera kontuan hartuz PNVren eta Ibarretxeren gobernuaren ardura» ere azpimarratu zuten. «Prozesu demokratikoaren atarian gaudela esaten ari gara, eta horren baitan ulertu behar dira Espainiaren eta Frantziaren aldetik jasotzen ari garen erasoak».

«Ezker abertzalea mantentzen ari den inizatiba politikoa galarazi» nahi dutela salatu zuten, halaber: «Prozesu demokratikoaren atarian ezker abertzalea ezinean dagoela irudikatu nahi dute eta, horrekin batera, gure ildo baldintzatu nahi duen kartzela eta errepresio mehatua helarazi nahi digu Espainiak».

## Deialdirako irizpideak

Honen aurrean, «ezker abertzaleak eta bere kidego osoak une politikoaren garrantzia» barneratu behar duela diote, «burutzen ari diren erasoaren norabidea eta arrazoiak eta honen aurrean izan behar dugun jarrera. Azkenaldian ematen ari diren erantzunak bikoiztatzen harteaz gain, ezker abertzaleak une honi garrantzia bereziaz erantzuteko erabakia hartu du».

# Greba eta mobilizazio deia, «erantzun sendoa emateko»

Biharko greba eta mobilizazio egunera deitu du eskualdeko ezker abertzaleak



Tolosaldeko ezker abertzaleko hainbat ordezkari, atzo, Tolosaldeko Kultur Etxean egindako agerraldian. NOELIA LATABURU

## DEIALDIK BIHAR ▶

## VILLABONA

09:00. Batzarra, plazan.

11:00. Giza katea, plazatik hasita.

20:00. Manifestazioa, plazatik Zizurkileraino.

## ALEGIA, IKAZTEGIETA, IBARRA, LIZARTZA

20:00. Manifestazioa, plazatik hasita.

## TOLOSA

12:00. Eskualde mailako manifestazioa, Triangulotik abiauta.

## LEITZA

11:00-14:00. Lanuztea.

12:00 eta 20:00. Manifestazioak, plazatik.

Hala, deialdirako lehen irizpidea «ematera goazen urratsaren garrantziari erreparatzen datza. Ezker abertzaleak ofentsiba osoan jokatu behar du egun honi begira, garai politiko honetan halako ekimenak izan dezakeen eragin politikoa biderkatzea da gure helburuetako bat. Biharko ekimena bete-betean kokatzen da egun bizi dugun egoera politikoak eskatzen duen ekinbide politikorekin».

«Ahalik eta erantzunik sen-

doenaren bila» joko dute herrietan: «Oraingoan ez dugu greba orokorrerako deia egin, planteamendu horrek sor ditzakeen zalantzak ekidin asmoz. Dena den, barnera begira greba orokorra balitz bezala jokatu dugu. Ahalik eta greba zabalena izatea saiatuko gara».

Ezker abertzaleko antolakunde bakoitzak ardura edo eginbehar bereziak izango ditu: lantegi mailako lanketa sindikatoari dagokio, ikaste-txeetako gazte erakundeari eta ostalaritza eta dendarien arloa, aldiz, Batasunari. «Guztion artean egin beharrekoak izango dira aterako den txartel bakarra jartzea, eta agitazio eta propaganda egin auzo edo herri mailako berezko baliabideekin».

Goizean goiz, «ahal dugun neurrian, egoera ez normala hedatzen saiatu behar dugu». Pikete taldeak martxan jarriko dituzte, hala, lantoki nahiz poligonoetan. Horren ondoren, erdiguneetan, ostalaritza eta dendaren itxiera bultzatze bidean ariko dira. 12:00etan eskualde buruetan manifestazio-eta deitu dute. Eta ilunabarreko mobilizazioak, berriz, herrietan izango dira. Halaber, tabernari eta dendariengana joko dute esku-orrria eman eta grebaren zergatia azaltzeko.

## laster eskuratuko duzu DOAN ostalaritza gidarik osatuena

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

OSTALARITZA  
GIDA 2006



- JATETXEAK
- SAGARDOTEGIAK
- ERRETEGIAK
- PINTXO TABERNAK

Goierricarra  
**hitza**

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Martxoaren 8aren harira

Bero-bero ditugu Tolosa mailan egindako diagnostikoaren emaitzak. Azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa osatu da Emakunde emandako diru laguntza baten bitartez. Datu eta informazio aberatsa lortu dugu eta martxoak 8 momentu egokia dirudi horren gainean hausnarketa egiten hasteko. Egindako inkestan hauxe galdetu izan zaie Tolosako herritarrei: «Gizon eta emakumeen artean berdintasun gehiago egongo balitz, uste duzu hobeto biziko zinatekela?». Itaun honen aurrean inkestatuen %52,5ak baietz esan du.

Interesgarria, dudarik gabe, herritarren multzo handi baten ikuspuntutik berdintasuna eta bizi kalitatearen artean dagoen lotura. Berdintasunaren alde lan egiteko arrazoi asko eta anitzak topa daitezke, horien artean, noski, giza eskubideen defentsa, baina horra hor diagnostikoak mahaigainean utzitako bestelako argudioak. Horiakin guztiekin bat eginik, Tolosako Udalak Berdintasunerako Zerbitzua jarri zuen martxoan orain dela ia urtebete. Geroztik hainbat egitasmo eta ekimen jarri dira martxoan, baina ahalegin hauetaz gain behar-beharrezkoa da denon in-

plikazioa eta parte-hartzea, berdintasunarena denok gizarite eta komunitate bezala dugun erronka delako.

Aipatutako diagnostikoaren arabera etxeko lanei loturiko ardurak guztien kasuan emakumezkoen inplikazioa gizezkoena baino askoz altuagoa da. Berdina gertatzen da pertsonen zaintzari loturiko zereginetan. Tolosan ere betikoek (emakumezkoek) etxeko antolaketaz eta pertsonen zaintzaz arduratzen jarraitzen dute. Dena dela, betiko lanak eta ardurak betiko en eskuetan jarraitzen dute izaten. Honen ondorio argi dago: emakumeek askok eta askok lanaldi bukaezina dute, lantokian aritu ostean etxeko ardurak zain baitute.

Diagnostikoak beste gai interesgarria azaleratu du: emakume eta gizezkoek herriko elkarte eta taldeetan duten presentzia. Arlo honetan ere datu desorekatuak topatzen ditugu berriro. Emakumeek talde kulturaletan eta bolondreskoetan parte hartzen dute nagusiki. Gizezkoek, aldiz, mota guztietako talde edo elkarteetan dute nagusitasuna: kirol elkarten eta elkarte gastronomikoen kasu aipagarrienak izanik. Konturatu gabe edo ez, emakumezkoen ekarpenak baztertzten ari gara. Ez al da hori luxu gehiegia?

Artikulu luatzeko gaiak ez

dira falta, hausnarketarako gonbita egitea zen lerro hauen helburua. Hausnarketa pertsonala eta taldekoa. Hausnarketa eta eztabaida, egun biak beharrezkoak dira eta. Berdintasunaren inguruko eztabaia ireki behar da, aurreiritzi gabe eta beldurrik gabe. Eta hori, berriro, denon lana litzateke: administrazioarena, elkarteena, Tolosako emakume eta gizon guztiona. Askotan, hauek urrutiko gaiak dirudite, komunikabideen bitartez bakarrik somatzen ditugun horietakoak. Hausnartu dezagun, gure etxeko antolaketari buruz, gure herriko errealitateari buruz, gizarite orekatu baten alde egin nahi badugu eta denon bizi kalitatea hobetu nahi badugu, ezinbesteko ariketa izango zaigu eta.

JOKIN BILDARRAZ ▶  
TOLOSAKO ALKATEA

Hipokresiari stop!

Azken urteotan, errebindikazioak hartu eta bereganatu egiten dituzte erakundeek. Hori egin zuten ekologiarekin, gauza bera gazteriarekin eta beste horrenbeste, azkenaldian, emakumearen gaiarekin. Dauden beharrei irtenbidea bilatzeko erantzukizuna dute, baina gehienetan desbirtuatu

egiten dituzte. Klase politikoak ez baitu gai hauek merezi duten sentiberatasun pertsonal hori. Gai hauek ere landu egin behar izaten dituzte, politikoki zuzen jokatzek hala eskatzen duelako, besterik gabe. Baina dena gertatzen zaie hutsala, benetakotasunik gabe, harri-kartoizkoa.

Gauza bera gertatzen da Tolosako udaletxean. Gaur egun Alkatetza duena, ez bera pertsonalki, ezta bere alderdia ere, ez da inoiz nabarmendu gure herrian emakumeen eskubideen alde egiteagatik, guztiz alderantziz baizik.

Idatzi hau sinatzen dugunok eta EH gure alderdiak aurreko legealdian erabaki genuenean danborradan emakumeen presentzia indartzea eta bertatik irudi sexistak ezabatzea, PNvk eta egungo alkateak ez zuten erabakia babestu; ezkutaturik geratu ziren, gaizki aterako zitzaigulakoan.

Irungo eta Hondarribiko emakumeek berdintasunezko alardearen alde Tolosako Udalari babesa eskatu ziotenean, PNvk eta gaurko alkate honek ukatu egin zieten bere babesa, beraiei ez zegokien zerbaitezela argudiatuta.

Horregatik mindu egin gaitu gaurko alkatea «jator» itxurak eginez ikusteak Inauterietako dianan pankarta beltzaren atzean, alardearena emulatu

nahian, «progre» plantak egin ez, bera benetako «Betiko» bat denean.

Eta zer esango dugu (gogo aspaldikoa genuen, bai) Udalen honek joan den azaroan eraso eta tratatu txarren aurkako eguna ospatzeko moduz? Bildarraz jauna, ezin da berdina «ospatu» inaugurazio bat eta tratatu txarren aurkako salaketa egun bat. Urte asko dira egun horretan kalera ateratzen garena, erasoak eta gizonen eskuetan hildako emakume kopuru izugarri hori salatzen. Egundak ez da ospatu behar eta ezin da ospatu urdaiazpiko bat besapean hartuta ardo ona edanaz, zuk ospatu zenuen bezala, ez baitago ezer ospatzeko eta bai asko salatzen.

Jende aurrean agertzeko dugu gogo neurrigabeak kari-katura bezala agertzen eta fribolitatera zaramatza; baina guretzat eta beste jende askorentzat, zinikoa eta indezentea da zure jokaera hau; martxoaren 8koaren aurrean, barkatuko duzu, baina ezin ditugu, ezta nahi ere, gure haserre eta ezinezona ezkutatu, urte asko baitaramatzagu borroka feministan jokabide hipokritik onartzeko, oso instituzionalak edo inauterizaleak izanda ere.

SILVANA OSTIZA ETA BEGOÑA  
ALDALUR ▶ AURREKO LEGEALDIAN,  
EMAKUMEAREN ARLOKO ARDURADUNAK

KULTURA ▶

Musika hotsak nagusi Bonbereneako taulan

Biharkoan, 22:30etik aurrera, 12 Twelve talde kataluniarra ariko da eta, larunbatean, berriz, Humus talde tolosarra

NOELIA LATABURU

Bonbereneako taulak bi kontzertu berezi hartuko ditu aste honetan. Bihar 12 Twelve talde kataluniarraren txanda izango da. Hala, 22:30etik aurrera, haien *Spiritismo* diskoa aurkeztuko dute, frees jazz doinuekin. Bartzelonako laukotearen bigarren lana da honakoa, zein zazpi kantu bildu dituzten.

Larunbatean, berriz, etxeko entzatz izango da txanda. Izan ere, Humus tolosarrek eskainiko dute kontzertua. 1997. urtean jaiotako banda hau ibilbide luze musikariak batu zirenean sortu zen. Urte hauetan guz-



12 Twelve Bartzelonako taldea ariko da, bihar, 22:30etik aurrera. HITZA

tietan diskografia polita burutu dute, *pulper* izeneko CD hastapenetan, 2002an 6 kantuz osaturiko CDA eta aurrean *Lehiotik begira zai* azken emaitza dira aipagarrienak. Denbora honetan 50 kontzertutik gora eskai-

ni dituzte. Euskaraz abesten dute. Mantxi gitarran, Natalia ahotsan eta baxuan, Edu baterian eta Raul gitarrarekin osatzen dute taldea. Beraz, astez aste musikak jarraitzen du Bonberenean.

iragarki laburrak ▶



**Elosua.** Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Ibarra.** Berritutako ebexibizita behoko solairuan, 30 m<sup>2</sup>-ko bulegoarekin.

**Irura.** Laskibar aldean, eraikuntza berriko ebexibizita salgai. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zumalakarregin, 150 m<sup>2</sup>-ko ebexibizita. Egoera ezinhobean. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zumalakarregin, berritzen ari diren ebexibizita, informazio pertsonala.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken ebexibizita salgai. 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.

**Tolosa.** Santa Klaran, 90 m<sup>2</sup> dituen ebexibizita salgai.

**Tolosa.** Alokairuan sartzeko ebexibizitak ditugu aukeran, lan kontratua eta bermeak aurkeztea beharrezkoa izango da.

**Tolosa.** Belateko zonaldean, trasteleku berriak salgai 8.600 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala eskaintzen da alokairuan. Guztia erakusleho. Informazio pertsonala.

**Albiztur.** Zatiuriko baserria salgai. Berrikuntza behar du. 200 m<sup>2</sup>-ko hiru solairu eta 35.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Alkiza.** Bi familietzako baserria salgai. Berritzeko. Informazio pertsonala.

**Andoain.** 80 m<sup>2</sup> dituen ebexibizita salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Igogailuarekin. Ikuspegi ederrak.

**Anoeta.** Duplex ebexibizita estreinatzeko, lau logela, bi komuna, egongela, sukaldea eta terrazarekin. Garajea aukeran.

**Berrobi.** 50 m<sup>2</sup>-ko ebexibizita.

**Berritua.**

**Donostia.** Portu-Ene. Berrituriko ebexibizita ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA ▶

# Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Emakumearen Nazioarteko Egunaren baitan

Bi eskualdeetako zenbait herritan, besteak beste, ikastaroak, ikus-entzunezkoak, hitzaldiak, kontzentrazioak eta afariak egingo dituzte gaur eta datozen egunotan

### ERREDAKZIOA

Martxoaren 8a da gaur. Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta egiten ari dira bi eskualdeetako herritan data honen inguruan. Ikastaroak, ikus-entzunezkoak, kontzentrazioak, hitzaldiak, afariak... egingo dituzte.

**ADUNA**  
Kontzentrazioa. Gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde lelopean, kontzentrazioa egingo dute. 20:00etan, Oskarbiko errotondan.

**Afaria.** Hilaren 11n afaria egingo dute Uztartzarri jaietxean, 21:00etan.

**ALEGIA**  
Hitzaldia. Emakumea eta baskortasunaren aldekako gure eskortasunaren izeneko saioa. Gaur, 18:30ean, Kultur Etxeko baitzar areoan.

**ALUZA**  
Afaria. Hilaren 11n, 21:00etan, Ouzamendi jaietxean.

**AMEZKETA**  
Merienda. Goiko lekalean bilduko dira herriko emakumeak, duela 25 urte hasi bezala. Merienda egingo dute eta emakume gunitik gonbidatzen dituzte.

**ANOETA-IRURRA**  
Ikastaroa. Eguneroko arazoak konpontzeko artea ikastaroa. 20 ordukoa da, eta 14 pertsona onartuko dituzte gabezes. Prezioa: Anoeta-Irurakoentzati 30



Zuzurkilo eskulan taldearen erakusketaren inaugurazioa egin zuten herenegun Abulondo kultur etxean, i. e.

euro, eta kanpokoentzati 40 euro. Murrizpenak izango dira Anoetaentzati eta Irurakoentzati. Anoetan egingo da ikastaroa izen-ematea hilaren 17a arte. Irurako edo Anoetako udaldebtean.

**Erakusketak.** Saharako errefuziatuen kanpamenduetan buruzko erakusketak. Hilaren 15a arte, Irurako Ikastolan eta Anoetako anbulategian.

**Hitzaldia.** Emakumeen egoera errefuziatuen kanpamenduan. Hilaren 10ean, 18:00etan, Irurako Ikastolan areoan. Saharako Lagunen Elkarteak kide bat joango da gaiaz mintzatzen.

**Kantu afaria.** Dizi Irurako Aizpurua jaietxean. Prezioa: 15 euro. Izan-ematea, bihar arte. Irurako eta Anoetako udaldebtean. Afalostean herri kantak abestuko dituzte Joseba Ramirez eta Aranburu Cruzen laguntza. Irurako Ikastola. Genero ber-

dintasunaren inguruan hezikideta kanpaina burutzen ari dira. Ikasleek egingo dako marrazkiak jarriko dira udaldebtean gaurtik aurrera. Etxe, 16:30ean, ikasleak udaldebtean joango dira eta bertan marrazkien batorazioa eta operi zozketa egingo da. Ondoren, merienda.

**Anoetako Ikastola.** Hezikideta kanpaina burutzen ari dira eta ikasleek egingo dako marrazki eta hormaiturdi erakusketak jarriko dute Anoetako Udalak bidaratu. Hezikideta iruzturuzko talerra egingo dute DBH 3-4koek, 11:15etik 13:15era.

**BERASTEGI**  
**Solasaldia.** Maria Vitoria berastegiarrarekin solasaldia, 17:00etan, gaur, Gaztariako Jaietxean Elkartearen. **Afaria.** Hilaren 11n, 21:00etan, Akalon afaria, Aldin Kultur Elkarteak antolatuta. Gaur da azken eguna izena emateko.

**LARRAUL**  
Afaria. Etxe, Goiz Arge jaietxean, afaria 21:00etan.

**LEABURU**  
Afaria. Leaburu-Txaramako emakumeek afaria egingo dute gaur herriko elkartearen. Udazkari opariak banatuko ditu.

**LEITZA**  
Kafe-tertulia. *The day mis ojos* filmaren proiektzioa gaur, 18:00etan. Amazabal Institutuko lasio gelan. Ondoren, kafe-tertulia. Gizarte Zerbitzuak eta Kultur Taldeak antolatuta.

**LIZARTZA**  
Afaria. Herritako taberna afaria egingo dute gaur.

**OREKA**  
Afaria. Herriko gizonetako emakumeek afaria prestatuko dute, gaur, herriko elkartearen.

**TOLOSA**  
Ipin kontaketa. 9 urte bitarteko laurentzat. Ebrotan, gaur, 18:00etan.

**Kontzentrazioa.** Emakumeek gure eskubideen alde borrokan lelopean kontzentrazioa egingo dute gaur, 20:00etan, Trianguluan. Bilgune Feministak deituta.

**Argazki Rallya.** Hilaren 10-12an Gasteizeko 1. Tolosako Argazki Rallya.

**Kontzertua.** Amparoriaren eta Sorikunen emanaldia. Hilaren 11n, 22:00etan, zezen-plazan.

**Diagnostiko aurkezpena.** Fojosako emakume eta gizonen egoera diagnostikoa aurkezpena. Hilaren 16an, Haur eta Gazte liburategian (Errota), 18:30ean.

**ZUZURKIL**  
Ikastaroa. Patchwork ikastaroaren hasiera zango da gaur. Asteazkenean 18:00etatik 20:00etara egingo da ikastaroa. Izan-ematea Aurrera Plazako udal bulegoetan. Prezioa: 30 euro. **Erakusketak.** Herriko eskulan taldeek beren lanak jarri dituzte ikusgai Abulondo kultur etxean.

JONE HERNANDEZ ▶ BERDINTASUN TEKNIKARIA TOLOSako UDALean

## «Berdintasunean, diskurtsoaren eta errealitatearen arteko jauzia nabarmena da oraindik»

**Noela Lataburu ▶** Duela urtebetei hona Tolosako Udalean Berdintasun teknikaria da Jone Hernandez. Ordutik, berdintasunaren alde lanean dihardu proiektuak gauzatu. Emakume eta gizonen egoera jasoaz diagnostiko berri bat plazaratu dute datorren astean. Emakumearen Egunaren harira, Hitzarekin jardun du.

**Martxoak 8, Emakumearen Eguna. Nola ikusten duzu egun hori?**  
Ospatzeko eguna da, baina oraindik ere aldarrikapenerako atzaria ere bada, noski, eta batez ere lanean jarraitzeko. Egun honen inguruan egiten diren ekitaldiak aprobetxatu behar dira lanean jarraitzeko. Gero eta ekimen interesgarriagoak gauzatuzen dira, baina oraindik asko dago egiteko.

**Zer hartu duzu aintzat diagnostiko hori buruzko gairari?**  
Bi metodologiaren erabilera: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Lehenengoa inkesta bat egin dugu gai antziki jorratuz, eta bigarrenean haur lan talde sortu dugu, kulturaren, kirolaren eta jaietan inguruko hausnarketa egiteko. Emaitzak hilaren 16an aurkeztuko ditugu Haur eta Gazte liburategian, 18:30ean.

**Nola ikusten duzu emakumearen egoera Tolosan?**  
Herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina inguru gutxi, gure inguruan emakumeen egoera orok har, berdintasuna da. Emakumeek gero eta for-

**Zein egitarau antolatu duzu Udalek, egun honen harira?**  
Protagonisismo berezia eskaintzeko zaie kultur arloan murgiltzen diren emakumei. Honekin batera, haur eta gazteentzako hainbat ekintza ere antolatu dira, berdintasunaren gaitzesko sentsibilizazioa puzteko asmoz. Azkenik, osatu berria den diagnostikoa aurkeztuko dugu, herriko emakume eta gizonen egoera jasoaz.

**Zer hartu duzu aintzat diagnostiko hori buruzko gairari?**  
Bi metodologiaren erabilera: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Lehenengoa inkesta bat egin dugu gai antziki jorratuz, eta bigarrenean haur lan talde sortu dugu, kulturaren, kirolaren eta jaietan inguruko hausnarketa egiteko. Emaitzak hilaren 16an aurkeztuko ditugu Haur eta Gazte liburategian, 18:30ean.

**Nola ikusten duzu emakumearen egoera Tolosan?**  
Herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina inguru gutxi, gure inguruan emakumeen egoera orok har, berdintasuna da. Emakumeek gero eta for-

matutzera handiagoa dute eta lan munduratzera ere gero eta ahulagoa da. Hezkuntza alorrean, beraz, aurrerapausoak eman dira, baina legei aldeki ere. Baina eteko ardurak zaindari loturiko lanak...

oraindik emakumearen esku daude gehienbat. Hainbat arloan aldatzeko oso martxo ari dira ematen. Aisialdirako denbora falta nabaria da. Hainbat esparrutan aurrera goaz, baina jokabideak eta pentsamoldeak aldatzeko lan asko egin behar da. Berdintasunean, diskurtsoaren eta errealitatearen arteko jauzia nabarmena da oraindik.

**Belauzaldi belauzaldi, nabaritzen al da deberdintasunik?**  
Bai, baina ustez baino gutxiago. Guretzeko ezaten dute denak, neakak eta mutiak, berdintasunaren aldeko berrikidetasunak dituzela. Berdintasunaren diskurtsoa barnerratu duen gizartean bizi dira. Unibertsitatean heldun direnean, bikoizteko elkarlanean lanean hasierako... orduan konturatuzen direla baieztatzen hori ere dela haur zuzena.

**Nola ikusten duzu emakumearen egoera Tolosan?**  
Herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina inguru gutxi, gure inguruan emakumeen egoera orok har, berdintasuna da. Emakumeek gero eta for-



**Zein alor landu behar ditugu berdintasunerako bidean?**  
Bide guztiak onak direla iruditzen zaiz. Lege aldetik, sententzializazio lanarekin, martxoan jarri diren egitasmoekin, Guztia baliabide egokiak dira. Egitasmo zehatzetatik abiatu behar da, abstrakzioetatik bukatzeko. Jende asko behar da lanean, bai administrazioan bai gizartean ere. Jendearen partidatzea beharrezkoa da.

**Eta, Tolosan, berdintasuna barnerraturik al dute herritarrak?**  
Administrazioaren aldetik gaia nahiko berria da. Herritan...

aldiz, gauzak egin dira azken urteotan baina, orokorrean, giroa nahiko epela dela esango nuke. Ertzabadiak falta da beharrik zentzuzko diren nabariek. **Udaletik, zein proiektu ari zarete lantzen?**  
Oraingu diagnostikotik abiatu gara. Helburua berdintasuna herri osoaren kontua izan dadin lan talde bat osatzea da; horrela, etorkizuneko aro berri bati hasiera emateko. Orain arte proiektu txikiak egin ditugu, herriko emakumeen fotoak, guretzeko lana, emakumei buruzko hitzaldiak, ikastaroak, kirolak... ◀

**Leaburu-Txaramako udala**  
Bz dadila izan egun bereko ospakizuna urte osoko eginkizuna.

**Asteasuko udala**  
Emakumeen egunarekin bat eginez.

**Zuzurkilo udala**  
Emakumeen egunarekin bat eginez.

**Irurako Udala**  
Emakumeen egunarekin bat eginez. Parekidetasunaren alde.

**txokoa** lagunena  
▶ HITZako harpidedunen artean Tolosa 750 Fundazioa antolatuturiko **SORKUN** eta **ANPARANOIA** taldeen kontzerturako 10 sarrera zozketatuko ditugu.  
Martxoak 11, larunbata 22:00etan Tolosako zezen-plazan  
Zozketan parte hartzeko deialdi 943655695 telefonora, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Deitzeke azken eguna: osteguna, martxoak 9.  
Tolosaldeko eta leiztaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaleen artean zozketak astero

**Ibarrako udala**  
Emakumeen egunarekin bat eginez.



## IBARRA ▶ POLITIKA

# 'Xebas'-i omenaldia egingo diote gaur

Duela 29 urte hil zuen Guardia Zibilak Sebas Goikoetxea ibartarra; 19:30ean izango da ekitaldia Ibarako hilerrian

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur beteko dira 29 urte Guardia Zibilak Sebastian Goikoetxea *Xebas* ibartarra eta Nikolas Mendizabal zaldibitarra Ezkio-Itsason hil zituenetik. Hori dela eta, Ibarako hilerrian 19:30ean omenaldia egingo diote gaur *Xebas*-i. Ibarako ezker abertzaleak deituta. Txalapartariak, dantzariak, lore eskaintzak eta interbentzio politikoak osatuko dute gaurko ekitaldia.

1977ko martxoaren 8an, Zumarragatik Tolosa aldera ziho-

azen, autoz, Sebastian Goikoetxea eta Nikolas Mendizabal. Ezkio-Itsaso parean dagoen bihurtune batean Guardia Zibilak gelditu egin zituen, eta autoan bertan hil zituen tiroz. Polizi operazio berean, Sebastian Goikoetxearen eta Nikolas Mendizabalen kide Frantzisko Aldanondo ondarrutarra tirokatu zuen Guardia Zibilak. Donostiako Antiguako kuartelera eraman zuten horren ondotik, eta bertan jipoitu egin zuten. Martuteneko espetxean egin zituen ondarrutarrak hurrengo hilabeteak. Behin aske utzi

zutenean, Ibarako Izaskun mendia hartu zuen gordeleku gisa. Bertako baserri baten atarian hil zuen Guardia Zibilak, tiroz, 1979ko urriaren 17an.

Sebastian Goikoetxea Ibaran jaio zen, 1948. urtean. 28 urte zituen Guardia Zibilak tiroz hil zuenean. Bai bere jaioterrian, bai eta Gipuzkoa guztian ere, hilketak salatzen protesta ekintzak burutu zituen. Orduetik, urtero egiten diote ibartarrek *Xebas*-i omenaldia, eta gaur ere gogoan izango dute.

Ibarako ezker abertzaleak



Jendetzak lagundu zuen Sebas Goikoetxearen gorpua hilerriariko bidean duela 29 urte Guardia Zibilak hil zuenean. HITZA

herriar guztiak deitzen dituzte ekitaldian parte hartzea. Halaber, deia egiten du biharko greban parte hartzea, «gure geroa landu behar dugulako, eta prozesuak aurrera jarraitu be-

har badu oraingo espetxe politikari eta dispertsioari planto egin beharko diogu, ezinbestekoa delako. Igor Angulo eta Roberto Sainzena bezalako hilketekin amaitzeko».

## BERASTEGI ▶ GIZARTEA

## Odol-ematea hilaren 15ean

Datorren asteazkenean, hilaren 15ean, eta ohiko moduan 18:30etik aurrera, odola emateko aukera izango da Berastegiko Muñagorri eskolan. Kasu honetan ere, Berastegiko odol emateen elkarteak herritar guztiak, baina batez ere gazteak animatu nahi ditu odola ematera.

## ANOETA ▶

## Bihar izango da tutorearen bisita KZgunean

Bihar izango du Anoetako KZguneak tutorearen bisita. 16:00etatik 20:00etara izango da, hain zuzen ere. Eta tartean, 17:00etatik 19:00etara bitartean, ondorengo mintegia eskainiko die bertaraten direnei: *Finantza Erak-ekin lan egin: Interneten bidez zure kontu laburpenak, mugimenduak eta abar kontsultatu.*

## IBARRA ▶

## Eneko Aritzak deituta, bilera Sendi ekintzan

Gaur, Eneko Aritzaren Lagunak Filmagintza eta Kultur taldeak bilera egingo du. 20:00etan. Ibarako plazan izango da hitzordua, eta bilera Sendi ekintzan egingo dute. Azken hilabeteetan Ibarako taldea lanean ari den *Sua* film luzearen filmaketan parte hartu nahi duten guztiak bertaratzeko deia egiten diete.

## BERROBI ▶ GIZARTEA

# Lehenengo eta gaurko eskolaren historia bilduko du 2006ko Pausoka aldizkariak

«Merezi duen itxiera» eman nahi diote horrela, eskola zaharrari

I. TERRADILLOS

Pausoka aldizkaria kaleratzen du urtero Berrobiko San Andres eskolak, eta aurtengo alea berezia izango dela iragarri dute; izan ere, aurtengo eskola berriaren aitzakiarekin, itxiera «ona» eman nahi diote hainbeste urtez Berrobiko eskola izan denari eta ongiatorria berriari. Horregatik, aldizkaria Berrobiko eskolari buruzkoa izango da, garai batekoa, azken urteotakoa eta etorkizuneko.

Lan hori burutu ahal izateko herritarren laguntza ezinbestekoa izango dutela azaldu

dute eskolako ordezkariak. Alde batetik, eskolarekin loturiko argazkiak bildu nahi dituzte artikuluak osatzeko edo erakusketa antolatzeko; beraz, argazkiak dituztenek, ahal bada data eta guzti, eskolara eramateko eskaria egin dute.

Argazkiez gain, eskolaren inguruko pasadizo interesgarri, kurioso edo zelebrek ere jaso nahi dituzte, eta horiek biltzeko aukera batzuk izango dituzte herritarrek: idatzita eskolara eramatea; Iriarte jatetxean, udaletxean, Errotatxon eta liburutegian jarritako liburutegian idaztea; seme-alabei pasa-

dizoak kontatu eta ondoren haiek eskolan idaztea; berrobiko eskola@yahoo.es eta berrobiko eskola@yahoo.es helbide elektronikoetan idaztea. Aste Santuak bitarte jasoko dituzte eskolan herritarren ekarpenak. «Bilduma honek balio dezala bakoitzak berriro haurtzaroarekin topo egiteko, buruan ditugunak besteekin trukatzeko, barre egiteko, gehiago jakiteko, amesteko...», azaldu dute.

Herritarrek animatu nahi dituzte parte hartzea, eta alde aurretik eskerrak eman nahi dizkie denei historia egiten laguntzeagatik.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

## EUSKARA ▶

## Jarraipen batzordeak batzarra du astelehenean

2005-06 ikasturtean egitekoak dituzten egitasmoei errebasoa egingen dute

## ERREDAKZIOA

Astelehenean da biltzekoa Leitzaldeko Bai Euskarari Ziurtagirien Jarraipen Batzordea: 18.30ean, Leitzako udaletxeko batzorde gelan egingen dute bilera.

Euskara Zerbitzutik jakinarazi dutenez, ikasturte honetako egitasmoen errebasoa egin eta horiek egikaritzeko urratsak zehaztuko dituzte, eta datorren ekainean ebaluaketa berri bat izanen delarik, teknikaria kontratatze deialdia ere antolatzeako dira, besteak beste.

## TELEFONOAK ▶

## Larrialdiak. ((112))

## Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

## Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

## LEITZA ▶ NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

# Larunbatean bigarren finalerdiko saioan ariko dira leitzarrak

Migel Mari Elosegi eta Diego Riañok Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioa dute Leitzako zinema aretoan



Elosegi eta Riañok herrian bertan kantatuko dute Nafarroako Bertsolari Txapelketan. JAIONE ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Larunbatean ekinen diote txapelketari bi bertsolari leitzarrak: Migel Mari Elosegi eta Diego Riañok Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoan kantatuko dute,

herrian bertan egingen duten saioan. Hilaren 11n, 18:30etik aurrera, Leitzako zinema aretoan izanen da hori.

Riañok eta Elosegi honako beste lau lagun hauek izanen dituzte bertso-lagun: Julen Zelaieta, Joxe Juan Zubieta *Etxa-*

*be*, Bittor Elizagoien eta Oier Lakuntza. Zelaieta eta *Etxabe* lehen ere finalean izandako bertsolariak dira; Elizagoien aspaldiko bertsolaria da eta eskarmentua badu, nahiz azken txapelketetan sailkatzerik lortu ez duen; Lakuntzak, be-

rriz, bertso-ligan lan polita eginda irabazi du txapelketan parte hartzeko eskubidea.

Etxekoei dagokienez, Riañok bertso ligan lortu zuen sailkapena, eta Elosegi iazko txapelketan lortutako lekuagatik. Edozein moduz, biek hala biek ere iazko txapelketako eskarmentua berena dutelarik, hor ari dira larunbateko saioari azken ukituak emanez, prestakizun saioak eginez; saioa herri-kideen aurrean egiteak esanahia baduelarik eurentzat.

Elizondon jokatu den finalerako txartela eskuratuko du lehendabiziko gelditzen denak. Gainerakoek, finalaurreko saioak bukatu arte itxaron beharko dute han izanen diren jakiteko, seirentzat baitago lekua.

Leitzako saioan egingen den moduan, igaro berri den igandean honetan jokatu zuten lehendabiziko finalaurreko saioa Etxarri Aranatzen: Estitxu Arozenak irabazi zuen (413,5 puntuakin), eta horrela finalerako txartela lortu.

## Arozena aurreneko

Berarekin batera, oso txukun aritu zen Estitxu Lagoma ere, bigarren geldituz (398 puntu); Julio Soto (384 puntu), Juan Mari Lopez (377 puntu) eta Joseba Beltza eta Oskar Esanga (370 puntu) izan ziren hurrenak. Zortziko ttikiko saioak izan ziren politenak eta baita Kultur Etxera bildu ziren ehun bat zaletuengandik txalotuen ere.

## HEZKUNTZA ▶

## Famili barruko harremana eta komunikazioari buruz ariko dira Erletako gurasoak Amaia Vazquezekin

Bigarren saioa egiteko, bihar, 14:50ean eta eskolako bideo gelan dute hitzordua egin

## J. ASTIBIA

Aurreko astean hasitakoari, bihar emanen diote jarraipena Erletako Denok bat guraso elkartekoek: Amaia Vazquez sikologo klinikoa eta haur eta gazteen hezkuntzan adituaren aholkuak jasoko dituzte, «familia barneko harremanen eta

komunikazioaren» inguruan. Honetakoan, «jarraibide praktikagoak» erakutsiko omen dituelarik, Gizarte Zerbitzuko

Prebentzio Programatik jakinarazi dutenez.

Aurreko saioan, «dauden guraso eta seme-alaben arteko

komunikazio motak» aztertu zituzten bezala, biharkoan «horiek nola zuzendu edota hobetu daitezkeen», azalduko dute.

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Web-orrian hainbat gairi buruzko eztabaidak daude zabalik, gaurko edo orokorrak. Esate baterako: «aurtengo inauterik igaro berri direla, zer gustatu zaizu gehien? zer botu duzu faltan? zer gehituko zenuke?»

**KEY-LAN**  
Sarrailgintza

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./Faxa: 943 65 03 13

## iragarki laburrak ▶

**LANA**  
**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Interesatuek deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

**SALGAI**  
**Etxebizitza.** Tolosan etxebizitza salgai. 2 logela, egongela, sukaldia

eta komuna. Igogailuarekin. Interesatuek deitu 652 72 14 95 telefono zenbakira.  
**Furgoneta.** Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 Kilometro. Oso egoera onean. Deitu 635 73 63 75 telefono zenbakira.  
**Autoa.** Seat Toledo. Diesela, 110 zaldi. 2002koa. 10.900 euro. Deitu 628 54 91 45 zenbakira.

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 8a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldean



beroena

14

hotzena

09

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:



gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Amasa.** Bertso afaria Amasako Iturrigoxo jatebtean Amaia Agirre eta Aitor Mendiluzeren eskutik. Larunbatean, 20:30ean. Txartelak salgai daude Iturrigoxon, 25 eurotan.  
**Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietzako bazkaria antolatuta dute hilaren 12an, igandea. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan. 37 euro sartu behar dira Kutxako 2101 0117 12 0125329102 kontu korrontean.  
**Tolosa.** Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikia, Kultur Ebean. Amaroazko auzo elkarteak antolatuta.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Jose Luis Albizuren koadroak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.  
**Leitza.** Manuel Lasarte: *bizitza eta sorkuntza*. Hilaren 26ra bitartean, udaletxeko batzar aretoan.  
**Tolosa.** Dorleta Ortiz de Elgearen pinturak. Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Heriotz eraikiak. Paco Polanen argazkiak. Hilaren 11 arte, Aranburun.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Gaztelu.** Peruko Cuzco hiriko Hattun Sonccowasi aterpetxeari buruzko argazki proiektioa. Bihar, 20:00etan, elkartean. Ainhoa Arregi belautzarrarekin.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.  
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10 (Tolosa). 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAren erreposoa, albisteak, elkarrizketak, disko eskainiak...  
18:00-19:00. Irauli uhinak.  
21:00-22:30. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Boliviatik etorritako doinuak

**TOLOSA ▶ San Ignacio de Moxos-eko abesbatza eta orkestra Laskorain Ikastolan izan dira, Merkatu Txikian lortutako laguntza eskertzeko**



San Ignacio de Moxos herriko abesbatza eta orkestra, Laskorainen, ikastolakoak begira dituela. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**S**an Ignacio de Moxos (Bolivia) herriko abesbatza eta orkestra Laskorain Ikastolan izan zen astelehenean, Merkatu Txikian lortutako laguntza bidali izana eskertzeko. Laskorainek Gabonetan antolatutako merkatuan 12.000 euroko irabaziak izan ziren. Erdia Sahara laguntzeko erabili zen eta beste erdia Boliviako herri honetan dagoen musika eskola laguntzeko. Musika eskola honetan izan da irakasle boluntario gisa Idoia Iraola, Laskorain Ikastolako ikasle ohia eta Laskorain Abesbatzaren zuzendari izana.

Harrera gisa, Laskorain Abesbatzak bestei pare bat eskaini zieten boliviarrari astelehenean. Ondoren, San Ignacio

de Moxos-eko musika eskolako abesbatzak eta orkestrak bere doinu batzuk interpretatu zituzten eta, propina gisa, *Haurtxo txikia* doinu euskalduna eskaini zuten (Idoia Iraolarekin landu dute). Ikastolako LH 5. eta 6. mailako ikasleak izan ziren saioan, «abesbatzaren presentzia handia dutelako eta Merkatu Txikian laguntza handia eman zutelako», Joxe Martin Aizpurua Ikastolako zuzendariaren hitzetan. 6. mailakoak Boliviako gaztekoekin izan ziren eskolako lan bat egiten eta 5. mailakoek hemengo herri kirolak erakutsi zizkieten.

Urtarrilaren 9an abiatu ziren Europara San Ignacio de Moxos-eko musika eskolako 37 ikasle (11-18 urtekoak), Raquel Maldonado zuzendariarekin eta Taupadak Gobernu

Kanpoko Erakundeko (GKE) Toño Puerta irundarrarekin (musika eskolako gerentea). Aurreneko hilabetean kontzertu ugari eskaini zuten Frantziari, Luxemburgoari eta Belgikari. Otsailaren 11tik Loiolako komentuan dute ostatua eta kontzertu asko eman dituzte Euskal Herriari: Hegoaldeko lau hiriburuetan, Loiola, Arantzazu, Hernani, Zumarraga, Irun, Segura, Getxo, Portugaleten, Gernika, Barakaldo, Lekunberri (eskolaren sortzailea, Maria Jesus Etxarri ursulina, bertakoa da), Tuteran, Los Arlos, Lizarra eta Xabier. Tolosara etorri aurretik Gijonen eta Oviedon ere izan dira eta laster Madrilen ariko dira, hilaren 17an etxera itzultzeko.

Egiten duten musika ia guztia herriko artxibategikoa da,

josulagunen garaiko eskuizkribuak, obra erlijiosoa. CDA ere grabatu dute eta salgai dago musika denda nagusietan.

Europako bira hau Alboan eta Taupadak GKEek antolatuta dute Hegoaldeko lau aurrezki kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. «Bira oso neketsua izan da, kontzertu asko izan ditugu», adierazi du Puertak. Kontzertu hauek lagundu duten udaletan eta josulagunen egoitzetan izan dira. Herria josulagunek sortu zuten eta egun frantziskotarrak daude. Aurten San Ignazioaren heriotzaren 400. urtemuga eta San Frantzisko Xabierren jaiotzaren 500. urtemuga da.

**San Ignacio de Moxos**

San Ignacio de Moxos herriak 7.000 biztanle ditu, Boliviako Amazonian aurkitzen da eta oso behartsua da. Aiton-amonek hitz egiten duten moxeño hizkuntza (ignacioan dialektoa) galtzen ari da eta haurrek ez dakite jada. Musika eskolak gaur egun 6 eta 18 urte arteko 250 ikasle ditu eta hazten ari da. Laguntzaren %80a Euskal Herriatik iristen zaie. Goizean eskola arruntetan ikasi ondoren, arratsaldeetan musika eskolan aritzen dira. «Irakasle bakarra ni naiz. Horregatik, batez ere, Europako udan joaten diren irakasle boluntarioen laguntza ezinbestekoa da. Urtean zehar maila mantentzen saiatzen naiz eta horretarako ikasle aurreratuenen laguntza daukat», dio Maldonadok.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Intza Adurriaga Aizpurua (Txarama).  
Gora marboak 8!

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...